

YOLANDA LARREATEGUI

UR ETA LUR



Marrazkiak: Eider Eibar

XXXIX. LIZARDI SARIA. 2020



erein **AUSKA**

UR ET ALUR

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2021eko irailean

Azalaren eta barruko irudiak:

© Eider Eibar

Maketazioa:

Erein

© Yolanda Larreategui

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-721-1





L.G.: D 993-2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

YOLANDA LARREATEGUI

UR ETA LUR

Ilustratzailea: Eider Eibar

XXXIX. LIZARDI SARIA. 2020

erein **AUSKA** 

Asierri eta Leireri.
Don't ever give up.
Ama

idazlea

yolandalarreategui



(Markina-Xemein, 1979) Lehen Hezkuntzako irakaslea da ofizioz eta bokazioz eta idaztea maite du. Helduentzako ipuinak ere idazten dituen arren (*Zaharrak berri, euriak* eta *Bixantxangorri haritz adarrean* “Peru Abar-ka Sariak 2006 eta 2020), haur eta gazteen- tzako ipuinak idazten gozatzen du ba- tez ere, haien begiradatik mundua nolakoa den aztertu ahal izateko. Larreateguire- nak dira *Maddik ikusezina izan nahi du, Gurasoak tokatzen zaizkit* eta *Ur eta Lur*. (39. Lizardi Saria).

eidereibar

ilustratzailea



20 urte daramatzat marrazkietan bidaiatuz. Badakit bidaia hauek arkatza hartzarekin batera hasten direla baina inoiz ez dakit nora eramango nauten eta ze forma, kolore, abentura...biziko dudan ipuin bakoitza marraztuz. Sorpresa zoragarriak aurkitu izan ditut eta batez ere idazle eskuzabalak eta pertsonaia interesgarriak ezagutu. Ur, Urtzi eta Lur izan ditut bidaide ur-margo eta tintazko abentura honetan...

Goiz berri bat iritsia zela ohartu zenean, orbelez egingadako estalkia gainetik kendu zuen eta, ohean eserita oraindik, horman itsatsita zuen posterrari so gelditu zen Lur apoa. Egunero egiten zuen hori. Esnatu, estalkia kendu, eseri eta horma-irudiari begira gelditzen zen pentsakor, irribarre inozo batekin. Haizeak ekarri zuen udazkeneko egun batez bere etxeko ateraino, eta etxe-ingurua erratzarekin pasatzen ari zela aurkitu zuen orbel artean, sarrerako zerriaren gainean, eta logelako horman itsatsi zuen mirestekoa. Hain zen ederra!

Horma-irudian zer agertzen ote zen galdetuko duzue agian, Lur apoa hain memelotuta egoteko hari begira. Ba urmael bat. Urmael eder bat. «Munduko urmaelik ederrena!», esaten zuen bere baitarako Lur apoak. Eta ez zuen arrazoirik falta. Monet margolari ospetsuak margoturiko urmael haiek bezalakoa. Urmaelik zoragarriena ez bazen, zoragarrienetariko bat bai behintzat. Ez dakizuela nor zen Monet? Lasai, Lurrek ere ez zekien baina berdin-berdin maite zuen poster hura, ez zekien zergatik, ordea, baina halako herrimina izaten zuen goizero esnatzerakoan.

Kax, kax!, jo zuen atea Urtzi urtxintxak. Zuhaitz berberean bizi ziren; Lur, sustraietan egindako gordeleku batean, eta Urtzi enborrean, goiko adarren ondoko zuloan. Bere auzokidea eta adiskiderik onena zen.

–Lur! Egun on! Kafea ekarri dizut! –Atea txikiegia zen berarentzat eta kanpoan egoten zitzaion zain–. Luuur! Horma-irudi horri begira al zaude oraindik? Horrelaxe igaroko zaizu bizitza, horma bati begira, ametsetan! Motel, motel... –Marmarti hutsa izan arren, berak ezagutzen zuen beste inork baino hobeto.



Bat-batean, apoak atea ireki eta kikara eskuetatik kendu, kafeari zurrupada bat eman eta esan zion:

–Egun on, Urtzi. Zer egun da gaur?

–Gaur... ba... gaur... Gaur da... gaur. Hori da. Gaur. Gaur da gaur –erantzun zion urtxintxak, harrirituta, inoiz ez baitzuen bere lagunak horrelakorik galdetu.

Eta apoak, bigarren zurrutada eman ondoren, kikara urtxintxari itzuli eta esan zion ausardiaz:

–Ba gaur izango da eguna. Hara!

–Eguna? Zer esan nahi duzu horrekin, Lur?

–Urmael horretara joateko eguna dela gaur.

–Horma-irudian agertzen den horretara?

–Bai horixe!

–Eta nola dakizu gaur dela eguna ba? –galdetu zion Urtzi urtxintxak harriturik, hain irmo ikusten zuen bere laguna!

Apoak begietara begiratu zion urtxintxari eta honela esan zion:

–Atzo ez zelako izan, eta bihar ez dakigulako zer izango den. Beraz, gaur izan behar du derrigor –eta bere gordelekuan sartu zen bidaia luze baterako pres-tatzeko asmoarekin.

–Eta badakizu non dagoen ala?

–Ba ez, baina aurkituko dut. Erabakita dago. Banoa.

Armairuaren goialdetik atera zuen motxila bat eta hantxe sartu zituen bainujantzia, kantinplora eta toalla bat, tapauka, galtzerdiak eta hortzetako eskuila, bere lagunak eman zizkion hur batzuk eta hiztegi bat badaezpada (beti datoz ondo hiztegiak). Eta atetik ir-tetera zihoala, «Posterra!», oihukatu zuen. Ia-ia ahaz-tu zitzaion! Motxila bizkarrera bota, betaurrekoak jantzi, makila eskuan hartu eta han utzi zuen bere basoko bizimodua gibelaldean.

–Adio, Urtzi. Bidaliko dizut postal bat.

* * *

Basoan barrena murgildu zen, *ttipi-ttapa*, arnasa hartu eta *ttipi-ttapa*, astiro, geldiro, atzeko hanka laburrek ez zioten uzten abiadura handian joaten, bera ez zen untxia, edo azeria, edo azkonarra, ezin arineketan egin. Bera apoa zen, *ttipi-ttapa*, eta apoek badituzte bere mugak, guztiok dauzkagun bezala, eta bere zangoek doi-doi laguntzen zioten

basoko orbel gainean gorputz borobil mozkote hari aurrerantz egiten. Horregatik ibiltzen zen maku-luarekin.

Ez zuen baso erdia ere zeharkatua, eta ilundu egin zitzaion. Ingurura begiratu eta gaztaina-oskol batzuekin egin zuen gau hartarako estalpea zuhaitz baten zurtoinarene ondoan, goroldioaren gainean.

«Epel-epel igaroko dut gaua behintzat», esan zuen bere kolkorako.

Hur bat jan zuen eta aski ase, goroldio bigunaren gainean etzan zen. Neka-neka eginda eta hanke-tako minez zegoen, baina lo aurreko irakurketatxoa falta eta ezin lorik hartu ibili zen alde batera eta bestera, bueltaka. Ilargiaren errainuak egin zion argi gaztaina-oskol artetik eta hiztegia ateratzea pentsatu zuen.

I./ ILARGI: «Lurraren satellite natural bakarra», hasi zen irakurtzen.

Ese./ SATELITE: «Bigarren mailako planeta, planeta nagusi baten inguruan grabitatzeko duena eta bere translazioan laguntzen diona». Ez dut piperrik ere ulertu.



U./ URMAEL. Hau bai, hau buruz dakit: «Lurra-zaleko sakonune natural batean dagoen ur bildu ez oso handia». Eta horretan pentsatzen, hiztegia bere zilbor gainean, loak hartu zuen. Hontzaren uluak ere ez zituen entzun.

«Ikusten? Hiztegiak beti datoz ondo», esango luke Lur apoak.

* * *

Eguzkiaren errainuek esnatu zuten Lur apoa. Gaztaina-azalak gainetik kendu, gorputza astindu, bere gauzak bildu eta bideari ekin zion, *ttipi-ttapa*, arnasa hartu, *ttipi-ttapa*. Kaferik ez, egun hartan.

Susmoa zuen urmaela basoaren beste aldean zegoela, hala aditu zion txikitan amari behintzat, baina basoa handia zen gero, eta bere zangoak motelak. Argi zegoena zen, txikitan urmaeletik basorako bidea egin baldin bazuen, itzulerako bidea egiteko ere gai izan behar zuela. Jakina, txikitan edonon ezkuta zitezkeen harraparietatik, orain ordea... Hain handi, pottolo eta pattal... Dudak zituen.

Ortzira begiratu eta hodei ilunez betetzen ari zela antzeman zion eta iparraldeko haizeak hozkirria eragin zion bizkarrean. «Ekaitza datorren seinale» esan eta tapauka jantzi zuen.

Orbelsikuaren gainetik *ttipi-ttapa*, *kris-kras*, lehenbiziko euri tanta erori zitzaion buru gainera, eta lehenbiziko horren atzetik etorri ziren bigarrena eta ondorengo guztiak ere. Ikaragarrizko euri-jasa hasia, ezkutatzeko zuloren baten bila hasi zen bere begi handiekin. Beranduegi, ordea. Ondoko zuhaitzaren oinean babeslekua aurkitu zuelakoan, ekaitz bortitz hark ez zeukan baretzeko asmorik eta zaparrada haren indarrak basoaren goialdetik erreka sortu eta, deskuidu batean, makila eraman zion. Eskuekin sustraiei ahal bezain gogor eutsi arren, zangoak airean, ekaitzaren indarrak eskuak labainarazten zizkion Lurri, eta leher-leher eginda, indar gehiagoren faltan, guztiz akiturik, urak eraman zuen gure laguna basoan bat-batean sortutako errekan, nora ez zekiela.